



## **ARAUTEGIA**

### **ATLETISMOA 2026**

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Atletismo Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XLIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu. Aire zabaleko pistan izango dira, 2026ko maiatzaren 23an, Irungo Plaiaundi atletismo pistan. Hona hemen arautegia:

#### **1. PARTAIDETZA**

Txapelketan honako hauek hartu dezakete parte: haurren kategoriako atletek (2012 eta 2013 urteetan jaiotakoek), baldin eta Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko lurralde historikoetako selekzioetako partaide badira; lurralde horietako ikastetxe eta elkarte ordezkarietako taldeek eta eskola kiroleko programetan parte hartu duten elkarteek. (LURRALDE HISTORIKO BAKOITZETIK BI TALDE, BAI GIZONEZKOEN KATEGORIAN BAI EMAKUMEZKOENEAN).

Lurralde-selekzioetako taldeek bina partaide eta erreleboetarako talde bana aurkeztu ahal izango dituzte proba bakoitzean. Atleta bakoitzak banakako proba bakarra eta errelebokoa egin ahal izango ditu gehienez.

Ikastetxeetako eta elkarteetako taldeek ordezkari bana gehi erreleboetarako taldea aurkeztuko dituzte proba bakoitzerako. Atleta bakoitzak banakako proba bakarra eta errelebokoa egin ahal izango ditu gehienez.

OHARRA.- Ikastetxeetako taldeetako atletek badute beren lurralde historikoko selekzioko kide gisa parte hartzerik, ikastetxearen ordezkari gisa parte hartzen ez duten banakako proba batean; inork ezin du iraupen-probetan edo iraupen erdikoetan (500m, 1.000m eta 3.000m) doblatu.



## **2. TALDEEN OSAERA**

Taldeek bete beharreko arauak:

- a) Taldean 11 atleta badaude, 8 gutxienez erakunde berekoak izan beharko dira.
- b) Taldean 10 atleta badaude, 7 gutxienez erakunde berekoak izan beharko dira.
- c) Taldean 9 atleta badaude, 6 gutxienez erakunde berekoak izan beharko dira.
- d) Taldean 8 atleta badaude, 6 gutxienez erakunde berekoak izan beharko dira.
- e) Taldean 7 atleta badaude, 5 gutxienez erakunde berekoak izan beharko dira.

## **3. IZEN EMATEA**

EUSKADIKO XLIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOetako izenemateak Lurralde ezberdinetako Foru Aldundietako kirol zerbitzuetan egin beharko dira (eta EZ, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zerbitzuetan) 2026ko maiatzaren 13a 20:00ak baino lehen.

2026ko maiatzaren 15a, arratsaldeko 14:00ak baino lehen inskripzio-orria Atletismoko Euskal Federaziora igorriko delarik .

Dortsalak 2026ko maiatzaren 23an bertan jasoko dituzte partaideek, probaren idazkaritzan (ordezkariak jasoko ditu bere ikastetxeko nahiz lurralde historikoko dortsal guztiak).

## **4. JOKU SISTEMA**

Jarraian egingo dituzten probak:

⇒ LURRALDE SELEKZIOETAKO TALDEEK



**EUSKADIKO XLIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK**  
XLIII JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



- a) Gizonezkoen kategorian: 80m, 150m, 500m, 3.000m, 3 km ibiliak, 80m hesiak (0,84), 220m hesiak (0,76), altuera, luzera-jauzia, pisua (3kg), salto hirukoitza, mailua (3kg), diskoa (800gr) eta 4 x 80m erreleboak.
- b) Emakumezkoen kategorian: 80m, 150m, 500m, 3.000m, 3 km ibiliak, 80m hesiak (0,76), 220m hesiak (0,76), altuera, luzera-jauzia, pisua (3kg), salto hirukoitza, mailua (3kg), diskoa (800gr) eta 4 x 80m erreleboak..

⇒ IKASTETXEETAKO edo ELKARTETAKO TALDEEK

- a) Gizonezkoen kategorian: 80m, 500m, 1.000m, 80m hesiak (0,84), altuera, luzera-jauzia, pisua (3kg) eta 4 x 80m erreleboak.
- b) Emakumezkoen kategorian: 80m, 500m, 1.000m, 80m hesiak (0,76), altuera, luzera-jauzia, pisua (3 kg) eta 4 x 80m erreleboak.

Altuera-jauzian, listonak atletek eskatutako altuera txikienean jarriko dira hasieran. Nolanahi ere, 10en multiploa izan beharko du neurriak eta, gero, 10 zm erantsiko zaizkio igo behar den bakoitzean, harik eta ezarritako altueretara heldu arte. Hona hemen ezarrita dauden altuerak:

- Emakumezkoen altuera: 1,20 - 1,25 - 1,30 - 1,35 - 1,40 - 1,43 eta hemendik aurrera + 3 zm
- Gizonezkoen altuera: 1,30 - 1,35 - 1,40 - 1,45 - 1,50 - 1,55 - 1,58 eta hemendik aurrera + 3 zm

Jauzi horizontaletan eta jaurtiketetan, atleta bakoitzak LAU saiakera egiteko eskubidea izango du. Atleta-kopuruak ahalbidetzen badu eta zuzendaritza teknikoa ados badago, baina, atleta bakoitzak SEI aukera izango ditu.



Proba guztietan zuzenak izango dira finalak, eta bi serie egin behar badira, bata ikastetxeetako atleta ordezkariekin egingo da eta bestea lurralde-sekzioetako atleta ordezkariekin.

## **5. SAILKAPENA**

Bi sailkapen egingo dira:

- a) Banakakoa (lehen hiru sailkatuak)
- b) Ikastetxeen edo klubuen arabera (lehen hiru sailkatuak )

Ikastetxe eta elkarteen arabera puntuazioan, txapelketan parte hartzen duten ikastetxe eta elkarteetako talde-kopuruaren arabera puntu bana emango zaizkio lehen sailkatzen den atletari (ikastetxe eta elkarteetako atleta ordezkariak bakarrik hartuko dira kontuan), bigarrenari puntu bat gutxiago, hirugarrenari beste bat gutxiago eta abar.

## **PROBAK**

Proben ordutegia eta segida:

1. 10:30o 3000m EMAKUME ETA GIZONEZKOAK SELEKZIOA
2. 10:30o 3000m Ibiliak GIZONEZKOAK ETA EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA 5. KALEA
3. 10:30o Altuera Jauzia EMAKUMEZKOA SELEKZIOA - IKASTETXEA
4. 10:30o Luzera Jauzia GIZONEZKOA SELEKZIOA-IKASTEXEA
5. 10:30o Pisua (3kg) EMAKUMEZKOAK SELEKZIO -IKASTETXEA
6. 10:30o DISKOA (0,800 kg)GIZONEZKOAK ETA EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
7. 10:55o 80m Hesiak (0,76m) EMAKUMEZKOAK IKASTETXEA
8. 11:00o 80m Hesiak (0,76m) EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
9. 11:05o 80m Hesiak (0,84m) GIZONEZKOAK IKASTETXEA
10. 11.05o Jauzi hirukoitza EMAKUME ETA GIZONEZKOAK SELEKZIOA
11. 11:10o 80m Hesiak (0,84m) GIZONEZKOAK SELEKZIOA



**EUSKADIKO XLIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK**  
XLIII JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



12. 11:20o 80m EMAKUMEZKOAK IKASTETXEA
13. 11:25o 80m EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
14. 11:30o 80m GIZONEZKOAK IKASTETXEA
15. 11:35o 80m GIZONEZKOAK SELEKZIOA
16. 11:45o Luzeera GIZONEZKOAK ETA EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
17. 11:45o Altuera GIZONEZKOAK SELEKZIOA - IKASTETXEA
18. 11:45o Pisua (3kg) GIZONEZKOA SELEKZIOA-IKASTEXEA
19. 11:45o MAILUA (3kg) GIZONEZKOAK ETA EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
20. 11:45o 500m EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA-IKASTETXEA
21. 11:50o 500m GIZONEZKOAK SELEKZIOA-IKASTETXEA
22. 12:00o 220m hesiak (0,76m) EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
23. 12:05o 220m hesiak (0,76m) GIZONEZKOAK SELEKZIOA
24. 12:15o 150m EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
25. 12:20o 150m GIZONEZKOAK SELEKZIOA
26. 12:30o 1000m EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA-IKASTETXEA
27. 12:35o 1000m GIZONEZKOAK SELEKZIOA-IKASTETXEA
28. 12:45o 4X80m EMAKUMEZKOA IKASTETXEA
29. 12:50o 4X80m GIZONEZKOA IKASTETXEA
30. 12:55o 4X80m EMAKUMEZKOAK SELEKZIOA
31. 13:00o 4X80m GIZONEZKOAK SELEKZIOA

## **6. EZBEHARREN AURREAN**

Lesio edo ezbeharririk sortu ezkeronahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausak bideratuko ditu.

## **7. AZKEN OHARRA**



**EUSKADIKO XLIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK**  
XLIII JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



Arautegi honetan azaltzen ez direnetarako, honako hauetara jo da:

- a) 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b) 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c) 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa.
- d) AGINDUA, 2026ko urtarrilaren 27koa, Lehenengo Lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuarena, 2026ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLIII. edizioaren deialdia egiteko dena.
- e) Ebazpena, 2026ko otsailaren 2koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2026ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLIII edizioako lehiaketako epaile bakarria izendatzen duena.
- f) Euskadiko Atletismo Federazioaren arautegia.
- g) WA-ren arautegia.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeru, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.